



Vital Fundazioa Kulturunea

A Aretoa

Apirila

Vitoria-Gasteizko Film Laburren Nazioarteko Jaialdiak, **Vital Fundazioaren** babes nagusia du eta munduko film labor onenak publikoari hurbiltzeko sortu da.

Helburua da epe laburrean estatu mailako erreferentzia bihurtzea eta, aldi berean, Gasteiz munduko zinema-panoraman jartzea eta hiria eta lurraldea estatuko eta nazioarteko zinemagileentzako filmazio-plato gisa sustatzea. Bestalde, ikus-entzunezko sortzaileak gonbidatuko ditu beren lanak aurkeztera eta proiektioak amaitzean beren lanen berezitasunak publikoarekin eztabaidatzera.

Informazio gehiago: <https://www.icoffgasteiz.com/>

Jarduera paraleloak

Era berean, jende guztiarentzako eta hiriko irakaskuntza ertain eta unibertsitarioetako ikasleentzako jarduerak antolatu dira:

a) Topaketa Iván Miñambresekin (asteazkena, hilak 19, 11:00etan. Betolaza aretoa - Montehermoso). Gaia: 'Nolakoa da animaziozko film bat ekoizteko prozesua?' Unicorn Wars filmaren *case study* baten bidez, ikus-entzunezko ekoizleak, ICOFF-GASTEIZ 2023ko

epaimahai ofizialeko kideak, animaziozko ikus-entzunezko proiektu baten faseak jorratuko ditu.

b)

Ostegunean, hilak 20, 11:00etan, Montehermosoko Betolaza aretoan hitzordu bikoitza izango da. Alde batetik, **(H)emen plataforma** aurkeztuko da,

Euskadiko ikus-entzunezkoen eta arte eszenikoaren sektoreko emakumeen elkarte,

Izaskun Arandia plataformako presidentearen hitzaldiarekin. Horrez gain, Euskadiko Filmategiak argitaratutako **'Cineastas vascas' liburuaren aurkezpenarekin** osatuko da ekitaldia. Gure zinematografian funtsezkoak diren emakumeei buruzko saiakerak biltzen dituen lehenengo liburua da, eta Deustuko Unibertsitateko irakasle María Pilar Rodríguezek koordinatu du. Euskal zinemaren berri ematea du helburu, emakume zuzendariak hainbat genero eta formatutan egindako lanak oinarri hartuta. Era berean, proiektu artistiko horien azterketa akademiko eta dibulgatzailea egiten du.

d) Topaketa Manu Gómezekin (ostirala, hilak 21, 11:00etan. Betolaza aretoa - Montehermoso). Zuzendari eta gidoilaria, ICOFF-GASTEIZ 2023ko epaimahai ofizialeko kidea, sormen-prozesuaz eta zineman eta telebistan duen esperientziak arituko da, bere lan nabarmenetako batzuekin.

Abonuen erosketa

Ez dago abonamendurik. Sarreraren erosketa "ekitaldiak" atalean egin daiteke.